

Hiria irudi bihurtzen denean

Getxophoto. Irailaren 11tik urriaren 12ra.

Betidanik, Uribe Kostako UK hamaboskaria egiten dutenek harro aldarrikatu dute aldizkariak, bere apalean, irudiari ematen dion garrantzia. Sentiberatasun horrek eraman zituen bertako zenbait kide Begihandi elkarte sortzera, helburu bakarrekin –ez makalarekin– oraingoz: Getxophoto antolatzea. *Erakusketa* hitza erabiltzeko tentazioa nekez uxatu dugu, aurren bigarren edizioa duen ekimen hau definitzeko orduan. Tira, balio beza terminoak, baina erne: erakusketa izanda ere –ezin uka daiteke–, ohiko euskarrietatik ihes egitea du xede nagusietakoa Getxophotok. Proposamenak artistiko bezain komunikatibo izan nahi du, hori ondo azpimarratu nahi dute antolatzaileek. Bestela

35 metroko argazkia Areeta auzoko metro geltokian.



INIGO AZKONA

esanda, betiko museo eta galerietatik atera nahi dute argazkigintza, nazioarteko argazkigintza ona. “Espazio publikoa erabiltzea dugu gustukoena”, diote. Kalea gurea da, berbakera ezkertiarra nahiago baduzue.


Erabiltzea ez ezik, janzea, betetzea, gupida gabe okupatzea, gaineratu liteke. Kaletar xehea begi handiz ibiltzera behartu nahi dute Begihandikoek, oinezkoa ezustean harrapatu, asko eta ondo iragarritako ezustea izanagatik; iaz behintzat lortu egin zuten helburua. Edozein ekimen arrakastatsu errepikatzeak berezko dituen arriskuen jakitun, egonkortasuna bilatzea dagokie aurren. Iraultzak beste baterako gorde dituzte, Getxoko eraikin esanguratsuenetako batzuen hormak argazki erraldoiz estaltzea nahikoa iraultza ez bada.

Hau idazteko unean ikusteke dauzkagu bigarren Getxophoto honek ekarriko dituen proposamenak, albo-irudian ageri dena bezalako salbuespenak salbuespen. Iazko edizioaren oroitzapena eta aurtengo argazkilarien izenak aski ditugu, hala ere, datorren hilabetean Getxori bisitatzea egitea gomendatzeko. Ez ezer bilatu, argazkiek bilatuko zaituzte zu. Eta badaezpada, eraman kamera aldean. Begi handientzako ez ezik, atzamar azkarrentzako gunea ere izan nahi du-eta Getxophotok. Kultura parte hartzailea esaten omen zaio horri.

UNAI BREA

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidedetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Ipar Euskal Herrian

